



Giza eskubideen bermeak Europan

**Arartekoaren Europako eta Nazioarteko
Gaien Bulegoa
2021eko urria**



**www.ararteko.eus
international@ararteko.eus**

GIZA ESKUBIDEEN BERMEAK EUROPAN

- [Giza Eskubideen Europako Auzitegiak](#) pertsonen demandak jaso ditzake, hain zuzen, haiek bizi diren estatuak Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko edo haren protokoloetako eskubide bat urratu duela uste duten pertsonenak. Demanda jarri ahal izateko, beharrezkoa da auzitara eraman nahi den herrialdeak dagokion hitzarmena edo protokoloa berretsi izana. Demanda jartzen duen pertsonak salatzen duen urraketaren biktima izan behar du, eta, gainera, Europako Auzitegira jo aurretik, barneko errekurtsio judizialak agortu behar ditu; hau da, urraketa estatuko instantzia judizial guztietan salatu behar du. Horrek esan nahi du, oro har, Konstituzio Auzitegiraino jotzea. Azkeneko ebazpen judiziala jakinarazten denetik, lau hilabeteko epean jarri behar da demanda. Prozesuan, auzitegiak demandatuari eta estatuari entzuten die. Demanda onargarria bada, epaia emango du hitzarmeneko eskubideren bat urratu den ala ez adierazteko, eta, hala badagokio, urraketaren biktimari konpentsazio ekonomikoa emango dio eta urraketa konpontzeko edo etorkizuneko urraketak prebenitzeko beste modu batzuk adieraziko ditu. Giza Eskubideen Europako Auzitegia Estrasburgon dago, eta haren webgunean [demandak jartzeko moduari](#) buruzko eta horren [prozedurari](#) buruzko informazio ugari dago.

[Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia nolakoa den jakiteko, haren [datu-basean](#) sartu zaitezke. Auzitegiaren epai eta ebazpen guztiak topatu daitezke bertan, ingelesez eta frantsesez. Auzitegiaren webgunean ere aurkitu ditzakezu datu-baseak erabiltzeari buruzko [eskuliburuak eta tutorialak](#), bai eta jurisprudentziaren [laburpenak, buletinak eta gaikako laburpenak](#) ere. [Justizia Ministerioaren](#) webgunean topatu dezakezu gaztelaniara itzulitako hainbat epai.]

- [Gizarte Eskubideen Europako Batzordeak](#) urtero berrikusi behar ditu Europako Gutun Soziala berretsi duten herrialdeek aurkeztutako txostenak; haien artean, Espainiak aurkeztutakoa. Txosten horietan, gutun horretako eskubideak betetzeko hartutako neurrien berri ematen dute herrialdeek. Batzordeak txostenak alderatzen ditu sindikatuetatik, enplegatzaileen erakundeetatik eta GKEetatik jasotako informazioarekin, eta estatuak Europako Gutun Sozialak ezartzen dituen betebeharrak bakoitza bete duen ala ez zehazten du.

Gainera, Gizarte Eskubideen Europako Batzordeak erreklamazioak jaso ditzake estatuen aurka gutuneko edozein eskubide ez betetzei buruz, baina eskumen hori aukerakoa da: soilik baliatuko da estatuak onartzen badu batzordeak bere aurka aurkeztutako erreklamazioak izapidetzea [gutunaren protokolo gehigarri baten arabera](#), Espainiaren kasuan gertatzen den moduan. Erreklamazio horiek honako hauek bakarrik aurkeztu ahal izango dituzte: herrialde bakoitzeko ordezkari diren enplegatzaileen erakundeek edo sindikatuak, enplegatzaileen erakundeek edo nazioarteko sindikatuak, edo GKEek. Batzordeak estatuaren eta kexagilearen argudioak aztertuko ditu, eta txosten bat egingo du. Txosten horretan erabakiko du estatuak bete dituen ala ez alegatutako gutuneko artikulak.

Bi prozedurak elkar lotuta daude; izan ere, estatuek, aldian behingo txostenetan, egin dutenari buruzko informazioa jaso behar dute taldekako erreklamazioen prozeduran adierazten diren ez-betetzeak konpontzeko.

- *[Gehiago jakiteko, [informazio-liburuxka hau](#) irakurri dezakezu. Arartekoak argitaratu zuen, Espainian berrikusitako gutuna 2021ean indarrean jarri zela-eta.*
- *Taldekako kexen prozeduretan batzordeak emandako ebazpenak eta herrialdeen urteko txostenen ebaluazioak eskuratzeko, haren [datu-basea](#) erabili dezakezu.]*

- [Europar Batasuneko Justizia Auzitegia](#) da Europar Batasuneko organo judiziala, eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna interpretatzeko eta aplikatzeko arduraduna. Auzitegi honetara iristeko aukera oso mugatua dute herritarrek, eta bideratzen dituen prozesuak, batez ere, estatu kideen eta Europar Batasuneko erakundeen arteko gatazkak dira, edo Europar Batasuneko erakundeen artekoak. Auzitegiak, gainera, estatuetakoz auzitegiek eskatuta, Europar Batasuneko Zuzenbidearen xedapenak interpretatzen ditu, bai eta gutunarenak ere, eta interpretazio horrek, ondoren, estatuetakoz auzitegiek beren auziak erabakitzeko balio du. Horrenbestez, Justizia Auzitegiak ere gutuneko eskubideak zeharka babesten ditu.

[Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia [hemen](#) topatu daiteke.]